Arartekoaren 2022R-1393-21 Ebazpena, 2022ko azaroaren 11koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen dio berrikus dezala Alokabide sozietate publikoak bizitegi-bazterketa larrian daudenentzako alokairu-laguntzen deialdi batean egindako jarduketa.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzerako onartu zuen herritar batek aurkeztutako kexa. Kexagile horrek lo egiten zuen ostatuko gizarte langileek aholkatuta esan zuen zailtasunak zituela COVID-19aren osasun krisiaren ondoriozko zaurgarritasun ekonomiko eta sozialei aurre egiteko laguntza ekonomiko bat formalizatu eta izapidetzeko.

   Zehazki, kexagileak erakunde honi esan zion laguntza ekonomikoa aitortzeko eskatu zuela ostatuko langileen konpromisoari eta arretari esker. Halaber, jakinarazi zuen langile horiek une oro lagundu ziotela Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak 2021eko apirilaren 13an emandako aginduan [1] (aurrerantzean, 2021eko apirilaren 13ko agindua) eskatzen diren nahitaezko izapideak egiten. Hala ere, ostatuko hezitzaileek kexagilearen izenean eta berau ordezkatuz egindako erreklamazioan esan zuten eskaria elektronikoki aurkezteko arazoak zituela eta Alokabide sozietate publikoak (aurrerantzean, Alokabide) izapidetzean zehar bidali zuen informazioa ez zela egokia izan.

   Testuinguru horretan, azaldu zuten oztopoak ezarri zizkietela aurkeztutako eskaera aldatzeko, Alokabidek uste zuelako elektronikoki aurkezteko kanala ez zela izan behar *"Laguntza Nagusiaren Programa"*, baizik eta *"Laguntza Osagarriaren Programa"*. Azken finean, sozietate publikoak jakinarazi zuen entregatutako agiri guztiekin egiaztatu zutela kexagilea bizitegi bazterketa egoera larrian zegoela.

   Azaldutakoaren ondorioz, Alokabidek ostatuko langileei gomendatu zien bigarren kanal horretan eskaera berri bat egiteko, eta jakinarazi zien jada sozietate publikoak eskuartean zuen dokumentazioaren zati handi bat berriro aurkeztu behar zutela.

2. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak laguntza eskaera igorri zion Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

---

[1] **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila**. 2021eko apirilaren 13ko Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuarena, etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautzen dituena eta laguntza horietarako deialdia egiten duena 2021eko ekitaldian, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. Hemen eskuragarri: EHAA, 77. zk., 2021eko apirilak 21.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Bere idazkian Arartekoak informazioa eskatu zuen Alokabide sozietate publikoak kexagileari bizitegi irtenbide bat errazteko laguntza ekonomikoaren izapidetzean egindako jarduketei buruz.

Era berean, Arartekoak jakin nahi izan zuen ea aurrekoa zuzendu eta prozedurarekin jarraitu beharrean, eskaera berria aurkeztu beharraren muga ezartzearen arrazoia aplikazio informatikoen diseinua izan zen.

Halaber, Arartekoak gogorarazi zuen administrazio prozedura bateko interesdunek eskubidea dutela jada administrazioak eskuartean dituen agiriak ez entregatzeko.

Era berean, Arartekoak aipatu zuen kezkatuta zegoela 2021eko apirilaren 13ko Aginduan jasotako betekizunarekin. Horren arabera, interesdunek nahitaez elektronikoki aurkeztu behar dituzte eskaerak eta horixe da eskaera aitortzeko bide bakarra.

Azkenik, Arartekoak aldez aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion; horiek geroago azalduko ditugu, errepikakorrak ez izateko.

3. Lankidetza eskaera horri erantzunez, erakunde honen erregistroan Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko sailburuaren kabineteko zuzendariaren erantzuna sartu zen, eta horrekin batera Alokabideko Bezeroen Arreta, Etxebizitza Aldaketa eta Prestazioetarako zuzendariak egindako txosten bat erantsi zen.

   Aurrekoarekin lotuta, bidalitako txostenean Arartekoari jakinarazten zitzaizkion sozietate publikoak gauzatutako bi espedienteen izapidetzeak. Zehazki, Arreta, Etxebizitza Mugitze eta Prestazioen zuzendariak hauxe azaldu zuen:

   - "*<u>EXPEDIENTE 349 (Ayuda Principal)</u>.*

     - *El día 18/03/2021 el reclamante realizó su primera solicitud (…) para el programa principal de Ayuda al Alquiler de Vivienda Libre.*
     - *El día 14/06/2021 el reclamante solicitó cambio de programa y desde Alokabide se indicó que tramitase una nueva solicitud acorde a su situación; previamente, se mantuvo contacto con su trabajadora social y se asesoró, a ella y al reclamante sobre la forma de proceder.*
     - *El día 8/07/2021 se le remite sms y además e-mail informando del envío de la Notificación de Subsanación para el expediente 349, programa principal de Ayuda al Alquiler de Vivienda Libre, para que pasase a recogerla por la oficina de Correos en los plazos indicados.*
     - *A fecha 15/07/2021 se ha recogido dicha comunicación y a partir de este momento comenzará el plazo de 1 mes para interponer recurso de alzada, si así se considerase. Si no interpone recurso, este expediente quedará cerrado.*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

EXPEDIENTE 933 (Ayuda Complementaria).

- *El día 28/06/2021 el reclamante realizó una nueva solicitud, esta vez, para el Programa complementario de Ayuda al Alquiler de Vivienda libre.*
- *La situación es que, una vez finalice el plazo de recurso de Alzada de la solicitud 349 procederemos al estudio y tramitación de la nueva solicitud 933. Como nota aclaratoria, el objeto de la ayuda es el mismo aunque las cuantías y requisitos sean distintos según la situación de vulnerabilidad."*

Azkenik, laguntzak aitortzeko izapidetzean erabiltzen den aplikazio informatikoko arazoei dagokienez, sozietate publikoak esan du arazoa ez zegoela erabilitako informatika tresnekin lotuta, baizik eta *"laguntza baterako edo besterako betekizunak, zuzentzeko epeak eta ebazpena betetzearekin"* lotuta.

4. Horrenbestez, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak daude, eta horregatik honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Soberan jakina da azken urteetan koronabirusaren agerraldi berria (SARS-CoV-2) gertatu dela mundu mailan. Koronabirus honek COVID-19 izena hartu du, kontuan hartuta gaixotasuna eragin duen agentea —*coronaviridae* familiako birusa—, eta gaixotasunaren koadro klinikoari lotuta dago.

   2019ko abenduaren 31n Osasunaren Mundu Erakundeak (aurrerantzean, OME) birusaren berri izan zuen, eta ordutik aurrera, birusa munduan zehar hedatzeko beldurrak eraginda osasun publikoko larrialdi egoera deklaratu zen nazioartean segurtasuna bermatzeko. Hala, mundu mailako sistema guztia alerta egoeran jarri zen, lehenik eta behin egoera zaintzeko eta arriskua azkar ebaluatzeko, eta bigarrenik beharrezko informazioaren komunikazioa errazteko, horrela erabakiak hartu eta erantzunak eraginkorki kudeatzeko. Aurreko guztia lortzeko ez ohiko neurriak ezarri ziren[2].

   Egitate jakin horretatik aurrera, 2020ko martxoaren 11n[3] OMEk COVID-19ak sortutako osasun publikoko larrialdi egoera pandemiara aldatu zuen, zeren eta munduko hainbat herrialdeetan aldi berean hedatzen ari zen gaixotasun epidemikoa

[2] **Osasun Ministerioa.** Alertak eta Osasun Larrialdiak koordinatzeko zentroa. Agiria eskuragarri dago hemen: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Actualizacion_11_2019-nCoV_China.pdf

[3] **Osasunaren Mundu Erakundea.** Agiria eskuragarri dago hemen: https://www.who.int/director-general/speeches/detail/who-director-general-s-opening-remarks-at-the-media-briefing-on-covid-19---11-march-2020

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

baitzen. Halaber, herrialde guztiei eskatu zien larrialdiei erantzuteko mekanismoak aktibatu eta handitzeko.

Horri erantzunez, 2020ko martxoaren 13an Segurtasun sailburuak, Osasun sailburuak hala eskatu eta gero, Euskadiko Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi formalki aktibatu zuen COVID-19aren hedapenetik sortutako osasun alertako egoerari erantzuteko[4]. Horrekin guztiarekin, lehendakariak Euskadiko Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labiren zuzendaritza bere gain hartu zuen[5].

Azkenik, mundu mailako pandemiaren deklarazioak sortutako alarma egoeraren araudi esparrua finkatu zen martxoaren 14ko alarma egoeraren dekretua onetsi zenean[6], eta dakigun bezala, hainbat aldiz luzatu zuten.

2. Egoera horretan, non herritarren mugikortasuna eta zirkulazio librea murrizten dituzten neurriak hartu baitziren, etxebizitzak ezinbesteko garrantzia hartu zuen birusaren aurkako defentsan. Hala, Leilani Farhak, Nazio Batuen Erakundearen orduko etxebizitza egokiari buruzko errelatore bereziak, adierazi zuen etxebizitza *"koronabirusaren aurkako lehen defentsa-lerroa"* [7]bihurtu zela.

   Zehazki, etxebizitzak hartu zuen garrantzia handiagoarekin eta ekonomia eta gizarte zaurgarritasuneko egoerekiko sentsibilitate bereziarekin, hasiera batean estatu mailan onetsi zuten martxoaren 31ko 11/2020 Legegintza Errege Dekretua, zeinak[8] guztiz betearazleak ziren neurriak ezarri zituen Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE); besteak beste eten egin ziren egoitzarako irtenbiderik ez zuten etxe zaurgarrien kaleratzeak eta ez ohiko moduan luzatu egin ziren ohiko etxebizitzetako alokairu kontratuak, baldin eta zaurgarritasun egoera COVID-19arengatiko ez ohiko lan egoeretan justifikatuta bazegoen.

   Ondoren, abenduaren 22ko 37/2020 Legegintza Errege Dekretuak, etxebizitzan eta garraioan gizarte eta ekonomia zaurgarritasun egoerei aurre egiteko premiazko neurrienak, [9] beste berritasun bat sartu zuen, eta horren arabera, ekonomia zaurgarritasun egoeraren arrazoiak ez zuen zertan COVID-19 izan behar, baizik eta

---

[4] **Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.** Hemen eskuragarri: EHAA, 52. zk., 2020ko martxoak 14.

[5] **Lehendakaritza.** Hemen eskuragarri: EHAA, 52. zk., 2020ko martxoak 14.

[6] **Espainiako Gobernua. Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikorako Ministerioa.** 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19 koronabirusak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera aitortzen duena. Hemen eskuragarri: BOE, 67. zk., 2020ko martxoak 14.

[7] **Nazio Batuak**. Dokumentua hemen eskura daiteke: : https://www.ohchr.org/es/2020/03/housing-front-line-defence-against-covid-19-outbreak-says-un-expert

[8] **Espainiako Gobernua. Estatuko buruzagitza.** Martxoaren 31ko 11/2020 Legegintza Errege Dekretua, COVID-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloetan premiazko neurri osagarriak ezartzen dituena. Hemen eskuragarri: BOE, 91. zk., 2020ko apirilak 1.

[9] **Espainiako Gobernua.** Hemen eskuragarri: BOE, 334. zk., 2020ko abenduak 23.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

orokorrean aipatzen zen zaurgarritasun ekonomikoa, eta 5. artikuluan bertan definitzen zen.

Aurreko guztiarekin, EAEk Konstituzioaren 148.1.3 artikuluarekin eta Autonomia Estatutuaren 10.31 artikuluarekin bat etorriz etxebizitzarekiko duen eskumen esklusiboa egikarituz, orduan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila zenak hainbat neurri ezarri zituen bereziki zaurgarriak ziren pertsonei etxebizitzen alokairuarekin laguntzeko.

3. Zehazki, pertsona zaurgarriei zuzendutako alokairurako laguntza ekonomikoen arloan agintaritza publikoek ezarritako askotariko neurrien artean orduan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak [10] hasiera batean onetsi zuen 2020ko apirilaren 30eko agindua, eta [11] gero indarraldia luzatu zuen 2020ko irailaren 22ra arte, eta azkenik bere xedea handitu zuen eta ekonomia laguntzen lerro berria sartu zuen 2021eko apirilaren 13ko aginduan.

4. Arartekoak positibotzat jotzen ditu EAEko askotariko botere publikoek urteetan zehar egin duten lana COVID-19aren ekonomia eta gizarte ondorio larriak arintzeko.

   Halaxe da, Arartekoak esan zuen aldeko iritzia zuela kalean bizi diren pertsonei laguntzeko gauzatutako ekintzen inguruan ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio Orokorrean[12]. Zerbaitegatik Arartekoak azpimarratu zuen gizarte zerbitzuen, esku-hartze sozialeko hirugarren sektorearen eta boluntariotzaren ahalegina eta dedikazioa, eta horiek aitortu eta goraipatu egin behar dira, giza balio eta balio profesional handia dutelako.

   Era berean, Arartekoak balioa eman zion larritasun izugarriko ez ohiko egoerak kaltetutako pertsonei zuzendutako laguntza ekonomiko sektorialak martxan jarri izanari, egoitza bazterketako hainbat egoerei irtenbidea emateko.

5. Testuinguru jakin horretan, Arartekoak behin eta berriz eta Nazio Batzuen errelatore bereziak muturreko pobreziari eta giza eskubideei buruz egindako txosten berriarekin bat eginez, esan du [13] gizarte babesa Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenean jasota dagoen giza eskubidea dela.

---

[10] **Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila**. Eskuragarri dago 83. zenbakiko EHAAn, maiatzaren 5ekoan.

[11] **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila**. Hemen eskuragarri: 192. zenbakiko EHAA, irailaren 29koa.

[12] **Arartekoa**. Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko ekainaren 5ekoa. Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez. Hemen eskuragarri: www.ararteko.eus

[13] **Nazio Batuen Erakundea**. **Batzar Nagusia.** Gizarte babesaren testuinguruan eskubiderik ez jasotzea. Olivier De Schutter errelatore bereziaren Muturreko pobreziari eta giza eskubideei buruzko txostena. Hemen eskuragarri: https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G22/322/20/PDF/G2232220.pdf?OpenElement

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Ondorioz, berresten da gobernuei dagokiela herritarren estaldura eraginkorra bermatzea bizi ziklo osoan lagunduko dieten gizarte babeseko programen bitartez. Hori dela eta, ez da nahikoa gizarte babeseko gutxieneko mailak ezartzea, baldin eta maila horiek eskuraezinak badira babestu beharreko norbanakoentzat zein taldeentzat.

Prestazioak xede den biztanleriarengana ez direnean iristen, gizarte babesak aldaketa lortzeko duen gaitasuna ahuldu egiten da, eta horrek esan nahi du efikazia, eraginkortasun eta ekitate gutxiago dagoela.

Zehazki, Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak (aurrerantzean, Batzordea) gogorarazi du Europako Gizarte Gutunean aitortutako eskubideak praktikoak eta efektiboak izan behar direla, eta ez soilik teorikoak. Beraz, jakin beharra dago 31. artikuluan jasotako etxebizitzarako eskubidearekin lotuta, Batzordeak berretsi duela beharrezkoa dela batasuneko estatuek arrazoizko epe batean eta ahalik eta baliabide gehienak erabiliz herritarrentzako eskuragarri jartzea bertan aurreikusitako eskubideek ondorio guztiak izateko beharrezko baliabideak. Bereziki gizarte bazterketa eta pobrezia egoerak detektatzen diren inguruabarretan[14].

6. Etengabeko esfortzu horretan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak denbora honetan zehar askotariko laguntza ekonomikoak onetsi ditu, eta gehienen helburua da etxebizitza duina eta egokia izatea oztopatzen duten zaurgarritasun ekonomikoko eta sozialeko egoerei aurre egitea.

   Horregatik guztiarengatik, beharrezkoa da etxebizitzako politika publikoak diseinatzean kontuan hartzea baita ere gizarte babeseko neurri efizienteak, eraginkortasunez bermatzen dutenak etxebizitza duin eta egokia eskuratu eta disfrutatu ahal izatea.

   Aurreko guztiarekin, Arartekoak kexa espediente hau izapidetu eta gero egiaztatu du zenbait laguntza ekonomikoren diseinuan eta ondorengo egikaritzean Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza,Etxebizitza eta Garraio Sailak hausnartu beharreko kontuak daudela.

7. Erreklamazio honen muina delako, Arartekoak bere analisia 2021eko apirilaren 13ko Aginduan oinarrituko du.

   Hala, 1. artikuluan oinarri arautzaileak finkatzen ditu eta deialdi bat egiten du 2021eko alokairurako laguntzak emateko, eta bi programetarako sarbideak bereizten ditu.

---

[14] **Gizarte Eskubideen Europako Batzordea.** *International Movement ATD Fourth World v. France*. Complaint no. 33/2006 erregistro zenbakia. Hemen eskuragarri: https://hudoc.esc.coe.int/eng/?i=cc-33-2006-dmerits-en

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Alde batetik, programa nagusiaren muina da alokairurako laguntzak ematea edo finantzaketako laguntza iragankorrak itzultzea ohiko etxebizitzako errentariei, baldin eta egiaztatzen badute COVID-19aren inpaktuaren ondorioz zaurgarritasun ekonomikoko egoeran daudela eta zailtasunak dituztela hileroko errenta ordaintzeko.

Bestalde, programa osagarri bat dago eta espezifikoki zuzenduta dago genero-indarkeriaren biktimei, ohiko etxebizitzatik kaleratuak izateko prozedura judizialetan dauden pertsonei, etxerik ez duten pertsonei eta bereziki zaurgarriak diren pertsonei laguntzak ematera. Aurreko guztia egoitza irtenbide bat emateko, nahiz eta hartzaileen egoera ez izan COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondoriozkoa.

Aginduaren xedea zehaztu eta gero, Arartekoa harritu zuen lehen kontua da interesdunek eskaria modu elektronikoan aurkezteko betebeharraren inguruko aurreikuspena.

Zehazki, 2021eko apirilaren 13ko Aginduaren 11.2 artikuluak zera xedatzen du:

- *"Interesdunek telematikoki aurkeztu **beharko** dute eskabidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu ofizialaren arabera (...), edo Alokabide SA sozietate publikoak www.alokabide.euskadi.eus webgunean dituen kanalen bidez."* [15]

Arartekoak badaki administrazio publikoek askotariko antolamendu zailtasunei eta barneko erronkei aurre egin behar izan zietela COVID-19ari aurre egiteko. Birusa agertzeak eta kontrolik gabe hedatzeak ez ohiko neurriak ezarri beharra ekarri zuen, eta zuhurtzia handiarekin jokatu behar zen eta mugatu egin zen interesdunak aurrez aurre egotea herritarrei arreta emateko bulegoetan.

Hain zuzen ere, kontu hori aztertu zuen Arartekoak azaroaren 5eko 4/2020 Gomendio Orokorrean[16], eta ondorioztatu zuen botere publikoek indartu egin behar zituztela herritarrei arreta emateko kanalak kalteak ekiditeko herritarrek administrazio publikoekin harremanak izateko duten eskubideetan.

Gauzak horrela, Arartekoaren ustez, aginduan bestelako irtenbiderik argiago eta zehatzago azaldu gabe jaso zen eskariak nahitaez telematikoki aurkeztu beharrari buruzko hasierako betekizuna ez da justifikagarria, eta ez dator bat Administrazio

---

[15] Arartekoak letra lodia jarri du.

[16] **Arartekoa.** Arartekoaren 4/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko azaroaren 5ekoa. Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste..Hemen eskuragarri: www.ararteko.eus

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, APEL) xedatutako araudi betekizunekin.

8. Halaxe da, APELen 14.1 artikuluan finkatuta dago pertsona fisikoek eskubidea dutela une oro aukeratzeko administrazio publikoekin beren eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko bitarteko elektronikoen bidez komunikatuko diren edo ez.

   Era berean, APELen 14. artikuluko 3. apartatuak dio ez ohiko moduan eta ebaluatutako inguruabarretan aukera dagoela administrazio eskudunak araubidez ezarri ahal izateko beraiekin bitarteko elektronikoen bidez komunikatzeko betebeharra (zenbait prozedura egiteko eta pertsona fisikoen zenbait kolektibori zuzenduta), hartzaile posibleen kaudimen ekonomikoa, gaitasun teknikoa, dedikazio profesionala edo bestelako arrazoiak direla-eta egiaztatuta badago beharrezko bitartekoak erabiltzeko moduan eta eskuragarri dituztela.

   Hala eta guztiz ere, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du gogoraraztea 2021eko apirilaren 13ko aginduan jasotako programa osagarria beste batzuen artean etxerik ez zuten pertsonei zuzenduta zegoela.

   Puntu hori analizatu behar da beraz, eta arreta jarri behar da kexagilearen kolektiboaren ezaugarri propioetan.

   Hasiera batean FEANTSAk, Etxerik gabeko Pertsonen alde lan egiten duten Elkarte Nazionalen Federazioak, proposatu zuen etxerik gabeko pertsonaren definizioa. Zehazki, kolektibo horren barne sartu zituen hauek denak: "Bizitzeko leku egoki batera modu iraunkorrean sartu ezin diren guztiak, edo bizitoki horri eutsi ezin diotenak zailtasun ekonomikoak eta beste oztopo sozial batzuk dituztelako, edo modu autonomoan bizitzeko zailtasunak dituztelako; bizilagun horiek artatu eta babestu behar dira, baina instituzionalizatu gabe".

   Definizio horrekin bat etorriz, Arartekoak orain dela gutxi izan du Euskal Estatistika Erakundeak etxerik gabeko pertsonei buruz egindako inkestaren berri. Zehazki, inkestaren datuen arabera, 2022an 4.456 pertsonek ez dute etxerik EAEn.

   Arartekoa bereziki kezkatzen duen kontua da ostatu zentroetan dauden eta gizarte jantokietan jaten duten etxerik gabeko biztanleak asko gehitu direla 2012. urtearekin alderatuta. Inkestaren arabera gehikuntza % 113koa da.

   Gainera, bereziki inkestak dio Gipuzkoan % 180,4 gehitu dela kopurua, Araban % 132,3 eta Bizkaian % 70[17].

   Testuinguru horretan eta EAEko egungo egoera ikusirik, ez da egokia laguntza ekonomikoak diseinatu zituzten oinarri arautzaileek eskatzea eskaria modu elektronikoan aurkeztu beharra. Ez da proportzionatua ezta ere sozietate

[17] **Euskal Estatistika Erakundea**. Etxerik gabeko pertsonei buruzko inkesta. 2022ko urriak 19. Hemen eskuragarri: www.eustat.eus

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

publikoaren web orria kontsultatzeko eskatzea jakiteko zeintzuk ziren sozietate publikoak zituen kanalak.

Aurretik aipatu moduan, kasu honetan eskatzaileak Arartekoari esan zion zailtasun larriak izan zituela eskaria elektronikoki egiteko. Izan ere, azaldu zuen udal ostatuko langileek emandako laguntza teknikorik gabe ezin izango zituela erabili laguntza aurkezteko bitarteko elektronikoak.

Hori dela-eta, Arartekoaren ustez ez da nahikoa 11.2 artikuluan egiten den aipamen hutsa Alokabide sozietate publikoak bere web orrian eskuragarri dituen kanalei buruz.

Are gehiago, Arartekoak azpimarratu nahi du 2021eko apirilaren 13ko Aginduan ez zirela azaldu APELen 16.4 artikuluan aurreikusita dauden agiriak aurkezteko askotariko bideak. Hau da:

- *"a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan.*
  b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan
  c) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
  d) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
  e) Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan

Horrekin eta 2021eko apirilaren 13ko Aginduan eskariak nahitaez telematikoki aurkeztu behar direla zehazten duen erreferentziarekin, uste dugu Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren nahia izan zela izapide elektronikoa modu bakarra izatea eskaerak aitortzeko.

Horregatik guztiarengatik, hasierako analisi batean eta Arartekoaren iritziz 2021eko apirilaren 13ko Aginduan argiago eta zehatzago aurreikusi beharko litzateke zein den laguntzak aitortzeko eskariak aurkezteko modua APELen aurreikusitako bideak barne hartuz, modu horretan ez mugatzeko bakarrik eskariak aukera bakar gisa elektronikoki formalizatu beharrera.

9. Laguntza ekonomikoak aitortzeko eskariak izapidetzeko prozedurari dagokionez, Arartekoak analisi hau partekatu nahi du.

   Erantzun idazkian Alokabide sozietate publikoak Arartekoari jakinarazi zion kexagileak udal ostatuko langileen laguntzarekin elektronikoki eskatu zuela programa nagusirako laguntza aitortzeko 2021eko martxoaren 18an. Hala ere, 2021eko uztailaren 8an sozietate publikoak SMS mezu bat eta mezu elektroniko bat bidali zituen jakinaraziz aukera zegoela "*zuzenketaren jakinarazpena*" jasotzeko eta *"aipatutako epean posta zerbitzuko bulegoetan jasotzera joan zedin"*.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Horrekin guztiarekin, Alokabidek baieztatzen du jakinarazpena 2021eko uztailaren 15ean jaso zuela, eta une horretatik aurrera hasi zela gora jotzeko aukerazko errekurtsoa jarri ahal izateko hilabeteko epea.

Arartekoaren ustez sozietate publikoak kasu honetan gauzatutako izapidea ez dator bat APELen aurreikusitako araudi betekizunekin.

Lehenik eta behin, bitxia da kexagileak elektronikoki hasi zuen prozedura batean sozietate publikoak bidalitako *"zuzenketako jakinarazpenean"* esatea *"aipatutako epeetan posta zerbitzuko bulegoetatik jasotzera pasatzeko"*.

Halaber, sozietate publikoak baieztatzen duen moduan, *"zuzenketa jakinarazpena"* 2021eko uztailaren 8an bidali zen eta 2021eko uztailaren 15ean jaso zen, eta ez dakigu zein den Alokabideren arrazoia ulertzeko *"une horretatik aurrera kontatzen hasiko dela hilabeteko epea gora jotzeko errekurtsoa jartzeko".*

Horri buruz Arartekoak dio APELen 68.1 artikuluak hauxe ezartzen duela:

- *"Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen 66. artikuluko betekizunak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den legeria espezifikoan eskatutako beste batzuk, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren."*

Azken finean, eta Alokabidek emandako hamar eguneko epean kexagileak eskatutako izapidea ez zenez egin, ezetsi egin beharko litzateke. Ondorioz, ezeztapen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko litzateke errekurtsoa aurkezteko epea.

Edonola ere, espedientean ez dago jasota inolako ezeztapen ebazpenik.

Modu berean, Arartekoaren iritziz errekurtso jakin bat jartzeko eskumenak, Alokabidek bidalitako txostenean baieztatzen den bezala, ez luke baldintzatu beharko laguntza ekonomiko bat aitortzeko eskariak egin ahal izatea, nahiz eta programa ezberdina izan.

Gauzak horrela, 2021eko apirilaren 13ko Aginduaren 7. artikuluan ez dago jasota berariazko bateraezintasunik horren inguruan.

Beraz, sozietate publikoak bidalitako informazioarekin Arartekoak egiaztatu du Alokabidek izapidetu, agindu eta sustatutako prozedurak ez dituela betetzen APELek eskatzen dituen bermeak.

10. Are gehiago, Arartekoaren aburuz Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak hausnartu egin beharko luke sozietate publikoari

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

laguntza ekonomikoak aitortzeko administrazio prozeduran esleitutako ahalen inguruan.

Urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuak zehazten du Etxebizitza Sailburuordetzari dagokiola Visesa eta Alokabide sozietate publikoek garatutako jarduerak koordinatu eta kontrolatzea[18].

Halaxe da, Alokabide oso-osorik kapital publikoarekin eratutako sozietatea da. Horrekin lotuta, martxoaren 29ko 65/2011 Dekretuarekin eta [19] abenduaren 9ko 230/2014 Dekretuak aldatu zituen bere estatutuekin bat etorriz[20], EAEko administrazio orokorreko sailen eta gainerako erakundeen bitarteko propio instrumental eta zerbitzu tekniko gisa eratu zen, eta horiek agindu ahal dute beren gizarte xedearekin lotutako lanak, zerbitzuak eta jarduketak egitea, baldin eta administrazio ahalak egikaritzen ez badira.

Horren inguruan, Arartekoak egiaztatu du Kontratazio Publikoko Aholkularitza Batzordeak aldeko txostena eman ziola EAEren bitarteko propio pertsonifikatuaren izaerari [21] 2019ko azaroaren 22an, eta Gobernu Kontseiluak 2019ko azaroaren 26ko bileran egindako proposamena onetsi zuen.

Gizarte xedea estatutuen 2. artikuluan azalduta dago. Horrekin lotuta, sortu denetik esleitu zaion eginkizuna da nagusiki alokairu erregimeneko etxebizitzak kudeatzea.

Egiaz sozietate publikoaren gardentasun atarian bakarrik ebazpen bat dago, eta bertan orduan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila zen zerbitzuen zuzendariak Alokabideri agindu zion EAEko administrazio orokorraren zuzkidura etxebizitzak eta ostatuak kudeatu eta kontserbatzeko, zehazki alokairu erregimenean lagata zeudenak, eta era berean, 2018rako enkarguen tarifak ezartzeko balio izan zuen[22].

---

[18] **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila**. Urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretua. Horren bidez ezartzen da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. Hemen eskuragarri: EHAA, 21. zk., 2021eko urtarrilaren 29koa.

[19] **Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraio eta Ekonomia eta Ogasun Sailak.** Martxoaren 29ko 65/2011 Dekretua, Euskadiko Autonomia Erkidegoarena, Alokabide SA sozietate publikoan partaidetzak sortu eta eskuratzeko. Eskuragarri hemen: EHAA, 64. zk., 2011ko apirilaren 1ekoa.

[20] **Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika eta Ogasun eta Finantza Sailak.** Abenduaren 9ko 230/2014 Dekretua, baimentzen duena Alokabide SA sozietate publikoaren gizarte estatutuak aldatzea. Eskuragarri hemen: EHAA, 241. zk., 2014ko abenduak 18.

[21] **Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila.** Kontratazio Publikoko Aholkularitza Batzordea. 23/2019 txostena, azaroaren 22koa. Hemen eskuragarri: https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

[22] **Alokabide.** Eskuragarri hemen: https://www.alokabide.euskadi.eus/gardentasun/

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Ildo horri jarraikiz, Arartekoak egiaztatu zuen Euskadiko kontratazio publikoko plataformak 2019rako beste enkargu bat jasotzen duela, eta horren barnean dagoela etxebizitzako parke publikoaren kudeaketa. Aurreko guztia, behar bezala bete dadin Sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 63.6 artikuluko betekizuna[23].

Aurreko guztiarekin, kontuan hartu behar da ez espedientean, ez sozietate publikoaren gardentasun atarian, ez eta Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman ez dagoela jasota inolako enkargurik justifikatzen duenik sozietate publikoak esku hartzea aipatutako laguntza ekonomiko horien izapidetzean.

Halaber, estatu kontseiluaren doktrinak zehaztu zuen dirulaguntzaren kontzeptua helburua dela, eta edonola ere, administrazio ahalaren egikaritzea dela[24]. Eskumen horri betoa jarri zion sozietate publikoak bere estatutuekin bat etorriz.

11. Gogorarazi behar da nahiz eta bere gizarte xedean zeregin hori jasota ez egon eta espedientean agindurik ez egon eta estatu kontseiluak erabaki izan dirulaguntza baten izapidetzea eta aitortzea edonola ere administrazio ahal baten egikaritzeak direla, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak Alokabide izendatu zuela erakunde laguntzaile gisa azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Errege Dekretuaren 52. artikuluarekin bat etorriz. Dekretu horren bidez onesten da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorreko printzipio arautzaileen legearen testu bategina (aurrerantzean, 1/1997 Legegintza Dekretua).

Horri dagokionez, Arartekoak azpimarratzen du erakunde kolaboratzaileak izan daitezkeela zuzenbide publikoko korporazioak eta zuzenbide publikoko erakundeek sortutako erakundeak eta ezarritako kaudimen eta eraginkortasun baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoak.

Era berean, bere eginkizuna da laguntzak edo dirulaguntzak kudeatu eta ordaintzea. Zehatzago esateko, 1/1997 Legegintza Dekretuaren 52.2 artikuluak erakunde kolaboratzaile baten jarduketak hauetara mugatzen ditu:

- *"Hala ezarrita dagoenean, onuradunei ematea jasotako fondoak, beti ere dirulaguntzaren edo laguntzaren arauetan aurreikusitako irizpideekin bat.*
- *Dirulaguntza emateko funtsezko baldintzak edo beharkizunak bete direla eta eraginkorrak direla egiaztatzea, hala badagokio.*
- *Erakunde emaileari zuritzea nola banatu diren xede horrekin jasotako fondoak, eta, hala badagokio, erakunde emaileari eskuratzea onuradunek aurkeztutako frogagiriak.*

---

[23] **Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila.** Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza. Euskadiko Kontratazio Publikoko plataforma. Espedientea: AAA_RES_1299/19_05._

[24] **Estatu kontseilua.** Dirulaguntzen Lege Orokorraren aurreproiektuaren irizpena. Espedientea: 1756/2003, ekainaren 26koa.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

- *Erakunde emaileak, Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fondoen kudeaketari buruz egingo dizkieten egiaztatze-jarduketak onartu beharko dituzte."*

Ez da ezer esaten beraz ,emakida edo aitorpeneko administrazio prozedura izapidetzeari, agintzeari edo sustatzeari buruz.

Horrekin guztiarekin, ez da albo batera utzi behar 2021eko apirilaren 13ko Aginduaren 10.2 artikuluak sozietate publikoari jarduketa hauek esleitu zizkiola:

- *"Banakako informazioa, orientazioa eta aholkularitza, interesdunek eskabideak behar bezala bete eta beharrezko dokumentazioa erantsi ahal izan dezaten.*
- *Eskabideak jasotzea eta eskakizunak betetzen direla egiaztatzea.*
- *Etxebizitzako lurralde-ordezkariari eskabideak ebazteko proposamena egitea, bai eta eskabideetan egiten den edozein aldaketa ere.*
- *Laguntzak ordaintzea.*
- *Onuradunek betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea."*

Are gehiago, 2021eko apirilaren 13ko Aginduaren 13.6 artikuluak zera xedatzen du:

- *"Alokabide SA sozietateak, halaber, laguntza lortzeko gainerako baldintzak betetzen diren egiaztatuko du, eta ebazpen-proposamena igorriko dio Etxebizitzako lurralde-ordezkariari, hari baitagokio ebaztea."*

Azken finean, Arartekoak egiaztatu du Alokabide sozietate publikoak, laguntzak edo dirulaguntzak kudeatu eta ordaintzetik haratago, nahitaezko administrazio prozedura izapidetu, agindu eta sustatu duela.

Eta aurreko guztia estatutuetan aitortu gabe dagoela eskumen publikoen egikaritzea.

12. Testuinguru horretan eta erreklamazio honen ebazpenean garrantzitsua delako, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du Auzitegi Gorenaren (aurrerantzean, AG) 2020ko urriaren 7ko erabakia gogoraraztea[25]. Zerbaitegatik jurisprudentzia finkatu zuen oso-osorik kapital publikoarekin eratutako merkataritza sozietateen ahalei buruz administrazio espedienteak kudeatzeari dagokionez.

Horrekin lotuta, AGk bere egiten ditu instantzia epaiaren argudioak eta lehenengo zuzenbideko oinarriaren arrazoiketa hauek gogoraraziz hasten da:

- *"La ya citada sentencia del Tribunal Supremo de 08/10/2013, cas. 5847/2011[26], deja claro que no puede ser objeto de la encomienda del art.*

[25] **Auzitegi Gorena**. Urriaren 7ko 1265/2020 Epaia. [ECLI:ES:TS:2020:3312]
[26] **Auzitegi Gorena**. 2013ko urriaren 8ko epaia. [ECLI:ES:TS:2013:4915]

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

15 de la Ley 30/1992 (mucho menos por tanto de la de autos del art 24.6 y 4.1.n de la Ley de Contratos del Sector Público) tareas que impliquen gestión de expedientes administrativos.

(…)

Todo lo anterior supone una posesión e impulso efectivo del expediente administrativo y de sus documentos que está reñida con las exigencias elementales de custodia y fe pública que deben afectar a dicho expediente y que solo quedan garantizadas si el mismo es poseído, custodiado, ordenado, incorporado en sus documentos y exhibido al particular por los funcionarios públicos de la Administración titular de la potestad administrativa ejercida."

Hasierako arrazoiketa hori irmoki azaltzen da AGk hauek aipatzean:

- *"…la confección material, custodia y exhibición – cuando proceda- de los expedientes administrativos (…) son actividades pura, específica, típica y nuclearmente administrativas. La Ley 30/1992, de Procedimiento Administrativo Común, dice que los procedimientos se tramitan bajo la responsabilidad de autoridades y del personal al servicio de las Administraciones Públicas (art. 35.b); y mal puede asumirse esa responsabilidad si el expediente ni siquiera se encuentra en poder físico de una sociedad mercantil sujeta al derecho privado, por mucho que preste servicios para la Administración. Esto es algo a nuestro juicio tan claro que parece sorprendente que hayamos llegado al punto en que sea necesario justificarlo e ilustrarlo expresamente. Es algo tan ínsito a todo el diseño estructural y conceptual de las Administraciones Públicas el que la formación, custodia y tramitación física de los expedientes administrativos es tarea de los servidores públicos, no <<externalizable>>, que las normas positivas no han considerado preciso hacer excesivas declaraciones explicitas al respecto, aunque desde luego las hay.*

  (…)

  La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común -aunque no sea aplicable al caso de autos creemos que puede ser citada a estos efectos- dedica su artículo 70 al <<expediente administrativo>>; dado que el procedimiento administrativo se tramita bajo la responsabilidad directa de los titulares de las unidades administrativas (art. 71.4), parece innecesario tener que argumentar demasiado acerca de que el rastro o soporte físico del procedimiento administrativo (el expediente) debe estar confeccionado, custodiado y manejado por los funcionarios de dichas unidades, pues mal puede asumirse esa responsabilidad si el expediente se (pone) a disposición de una sociedad mercantil que es la que, por ejemplo, recibe los documentos que presenta el expedientado y le remite los que elabora la Administración."

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Laburbilduz, AGk ezartzen du espedientea zaintzen duena, dokumentuak jasotzen dituena, askiesten dituena eta espedientean sartzen dituena eta horietarako sarbidea interesdunari ematen diona ezin dela merkataritza sozietate bat izan bere langileen bidez jardunez, baizik eta espedientearen ardura duen administrazio publikoa zerbitzari publikoen bidez jardunez.

Gauzak horrela, bigarren zuzenbideko oinarrian hauxe baieztatzen da:

- *"Por ello, no es que la Administración externalice un servicio, es que externaliza, podría decirse, ella misma, deja de ser Administración si deja de realizar lo que es básico para dictar actos administrativos, el procedimiento legalmente establecido para ello que es, no se olvide, una exigencia constitucional."*

Aurretik azaldutako guztiarengatik, AGk bere analisia bukatzen du laugarren zuzenbideko oinarrian modu honetan:

- *"...todas las actuaciones llevadas a cabo por personal ajeno a la Administración (...), es nulo de pleno derecho y, por derivación, los son las resoluciones que se dictan, que se limitan, no consta otra cosa, a la mera firma de la propuesta que le es presentada."*

13. Laburbilduz, jurisprudentziak ezartzen du administrazio eskumenak egikaritzea sortzen duten edo agintaritza egikaritzen duten eginkizun guztiak funtzionarioek egin behar dituztela.

    Bakarrik jarduketa osagarriak edo teknikoak egin ahalko dituzte langile lan kontratudunek. Hala, AGk 2012ko uztailaren 9ko epaian eginkizun horietako batzuk honakoetara mugatu zituen: *"atención al público en general, atención al teléfono, apoyo a los trabajos de registro de documentos, apoyo a los trabajos de emisión de documentos y apoyo a los trabajos de correo de documentos."*[27]

    Azken finean, erakunde nagusiak bere menpeko erakundeetan egituratzen dituen egintzak dira, eta egiaz ez dago bi aldekotasun edo negozio juridikoko loturarik beraien artean, baizik eta hierarkiako eta autoantolamendurako eskumeneko lotura.

14. Halaxe da, Alokabidek 2021eko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusitako laguntza ekonomikoak izapidetzeko egindako jarduketak zalantzarik gabe oso-osorik administraziokoa den jardueraren parte dira, eta beraz, administrazio zuzenbideari lotuta daude.

    Azaldutako guztitik behar beste egiaztatu da Alokabidek ez duela bakarrik laguntza puntual bat edo laguntza tekniko jakin bat eman. Oso kontrara, sozietate publikoak esku hartu du administrazio prozedura jasotzen, agintzen eta sustatzen.

---

[27] **Auzitegi Gorena**. 2012ko uztailaren 9ko epaia [ECLI:ES:TS:2012:5418]

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Izan ere, Arartekoak egiaztatu du Alokabidek laguntza ekonomikoa aitortzeko eskari elektronikoa jaso zuela, betekizunak egiaztatu zituela, zuzentzeko eskatu zuela eta erabaki zuela ez zela eskari berririk aurkeztu behar, hala bazegokion gora jotzeko errekurtso posiblea aurkezteko hilabeteko epea igaro arte.

Edonola ere, ez dirudi Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintza Errege Dekretuaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera honakoa aurreikusi zuenik:

> *"...ahal publikoak baliatzeko jardunetan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak zaintzeko zereginetan zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen duten eginkizunak betetzea funtzionario publikoei dagokie, modu esklusiboan, betiere, administrazio publiko bakoitzean arlo hori garatzeko legean ezarritakoari jarraituz."*

Orain arte azaldutakoa nahikoa ez balitz, Arartekoak egiaztatu du erakunde honi bidalitako erantzuna oso-osorik idatzi duela sozietate publikoak, eta espedientean ez dela aipatzen hasiera batean ebazteko eskumena izango lukeena, hau da, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza.

Gainera, bidalitako erantzunak ez du jasotzen ezta ere Etxebizitza Sailburuordetzaren oharrik, eta aurretik aipatu dugun moduan, bera da sozietate publikoaren koordinazio eta kontrol eskumenak dituen organoa.

15. Laburbilduz, Arartekoak izan du Alokabide sozietate publikoak 2021eko apirilaren 13ko Aginduan egoitza bazterketa larriko kasuetarako diseinatutako laguntza ekonomikoak izapidetzean gauzatutako esku-hartzearen berri.

Horri dagokionez, behar beste egiaztatu dira kexagileak eta ostatuko langileek izan zituzten arazoak eskaera elektronikoki formalizatzeko.

Era berean, Arartekoak egiaztatu du Alokabidek emakida helburuetarako administrazio prozedurako izapidetze, agintze eta sustapen zereginak egin dituela. Hala ere, Arartekoak ez du jarduketa hori justifikatzen duen agindurik edo hitzarmenik.

Orain arte azaldutakoa nahikoa ez balitz, aipatu behar da Alokabide sozietate publikoko estatutuen gizarte xedean ez dagoela jasota inolako esku-hartzerik laguntza ekonomikoen izapidetzearekin lotuta. Are gehiago, azaldu dugun bezala, estatutuetan berariaz jasota dago debekatuta duela administrazio eskumenak egikaritzea.

Azkenik, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du berrestea laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak diseinatzeko AGren jurisprudentzia kontuan hartu behar dela. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

zehaztu beharko du zeintzuk diren izapidetzearen ardura duten organo eskudunak eta eskumen horien mugak, legez eskatzekoak diren berme guztiekin.

16. Jakina denez, Legeak administrazio eskumenak eta ahal eta eskumen publikoak esleitzen eta antolatzen ditu, eta zenbait jarduketa printzipio eta eskakizunetara lotzen ditu, eta horren oinarria da eskumenari uko egin ezin izanaren printzipioa. Printzipio eta betekizun horiek ez dira administrazioak osorik xedatzekoak, ez baitu ez botererik ez aginterik aurretiazko legezko gaikuntzarik jaso gabe. Ordenamendu juridikoak esleitzen du agintaritza eta botere hori, eta horregatik, eskumenak botere juridikoak besterik ez dira.

    Legezkotasun eta segurtasun juridikoko printzipioa betez, erreserba argia ezartzen da zeregin publikoak erakunde pribatuei emateko. Azken finean, legea da tresna legitimoa eragile pribatuei ahalmen publikoak esleitzeko, eta modu horretan zehazten ditu bere araubide juridikoa eta bere egikaritzearen mugak.

    Aurretik azaldutako guztiarengatik, Arartekoak ondorioztatu du zalantzarik gabe sozietate publikoak ahalmen publikoak egikaritu zituela eta estatutuetan betoa jarrita duela horretarako, eta legez debekatuta duela horrelakorik egitea.

    Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egiten du, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

GOMENDIOA

Azaldutakoa dela bide, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak konfiguratzen dituenean, azter ditzala xede dituen kolektiboen ezaugarri propioak, horrela sarbidea ez dadin proportzioz gaindiko oztopoa izan laguntzak jaso nahi dituztenentzat.

Edonola ere, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berrikustea Alokabide sozietate publikoari egindako enkarguak, eta aldatzea ahal publikoak egikaritu direla egiaztatutako horiek.

Azkenik, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak hausnartzea laguntza ekonomikoen edo dirulaguntzen administrazio izapidetzean menpekoak diren askotariko sozietate publikoei aitortutako ahalen inguruan.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus